

ARRANOAREN HEGALDIA

Arantxa Bastida Arozena

Azpeitia

Egun oso gogorrak izan dira azken hauek, gogorrak benetan. Lanik gabe gelditu nintzenean, inoiz ez zitzaidan burutik pasa arrantzale lanetan hasiko nintzenik. Izan kontu lan oso gogorra dela, eta are gehiago emakumea bazara. Gizon mundua da itsasokoa, zakarra benetan.

Lehen etxeko lanez arduratzen nintzen etxekoandrea bainintzen. Baina senarra itsasoan desagertu zitzaidanetik, ez nuen beste irtenbiderik aurkitu Elene eta Xabier txikia mantentzeko. Lana bilatzeko modua berezia izan zen: senarra desagertu berritan, armadorea etorri zitzaidan edozein mota-tako laguntza behar izanez gero, hark lagunduko zidala esanez.

Ondo gogoan dut zelako aurpegia geratu zitzaioren Telmo arrantza-ontzian erroldatu nahi nuela esan nionean. Ahoa ireki zuenean zerbait esateko, hitzik gabe geratu zen bat-batean.

Oso zaila egin zitzaidan seme-alabak gurasoekin uztea. Zalantzarik gabe, nik uste inoiz egin dudan gauzarik latzena izan dela. Gurasoak ere, nire hobe

beharrez, hasieran ez nituen alde izan. “Zer egin behar dinate umeez aitarik eta amarik gabe?”. “Lasai izateko. Ez zegoela esku hobeagoetan uzterik”.

Askotan itsasoari begira geratzen naiz. Begiak itxi eta hegan dabilen arranoa sentitzen naiz olatuaren urruma entzuten. Mutrikutik Ondarroara airetik itzuli; eta Elene eta Xabierren begi urdin eta handi horietara pausatu, besarkada eta muxu izugarri bat eman; eta indarberrituz berriro zerura aineratu. Xabier jada koskortu da, eta Elene, berriz, nire begietako ninia da. Baina, makinaren soinuenak laster esnatzen naute neure ametsetik. Eta nire bihotza negarrez hasten da, minez, jostorraz batek bihotza zeharkatu balit bezala. Eta min hori arintzeko, hemen naukazu zurekin hitz egiten, nire eguneroko maitea.

Sarritan beldurturik ere sentitzen naiz, bakarrik. Senarra faltan botatzen dut. Olatu kolpe txar batek eramanez zuen berekin. Baina noizean behin olatu hauetako baten artetik bere irribarrea entzungo dudala amesten dut; bere aurpegi baikor eta ederrari begiratu, eta “Maitea, dena ondo joango da” batez erantzunez. Honela, nire barruan argi txiki baina sendo bat sortzen da; ezerk zapuztu ezinena.

Lankide oso jatorrak ditut: bada txo gazte bat ere amaren beharra duenik. Hamahiru urte baino ez ditu. Xabier txikia dakarkit gogora, bere izaera ausart eta adoretzu horrekin. Behin baino gehiagotan galdetzen diot neure buruari ea zer egiten

duen horrelako mutil koskor batek itsasoaren erdian. Beragana hurbiltzen saiatzen naiz eta, egia esan, eguna pozten dit txantxa artean, inoiz izan ez dudan seme zaharra balitz bezala. Xabier eta Elenerekin oso harreman ona izango luke nire iriziz.

Patroia ere oso jatorra da, eta ni babestu nahia antzematen diot. Halere, nik tripulazioko bat gehiago naizela gogorarazten diot. Ez naizela artaldeko ardi ezindua. “Zu bezalakoak balira ardi ezindu guztiak...” erantzuten dit irribarre batez.

Egunak pasa ahala gero eta neketsuagoa egiten ari zait hau guztia, baina ezin dut amore eman. Emakume indartsua izan beharra dut. Ikaragarri sumatzen dut nire bi azukre koxkorren falta. Ondo egongo al dira? Astebete falta zait lehorreratzeko. Laztanak, muxuak, besarkadak, xuxurlak... Ai ene!

“Amatxo, lasai ibili” esaten dit lasaitzeko Xabier txikiak. “Nik zainduko ditut aittite eta amama”.